

## **Matia Fundazioaren gida berria, demenzia duten pertsonengan zentzuzko bizitza sustatzen duten jarduera esanguratsuak errazteko**

- Gutxi esploratutako eremu batean zentratzen da gida hau: demenzia duten pertsonentzat eguneroko jarduera esanguratsuak duen garrantziari buruzko ikerketan, baita sindrome horren fase aurreratuenetan ere.
- Materialak 15 erakundek baino gehiagok parte hartu duten berrikuspenera izan du, Matia Institututik abiatutako elkarlaneko ikerketa-prozesu baten bidez.
- Nazioko eta nazioarteko 750 pertsonak baino gehiagok eman dute izena gida aurkeztuko den webinarrean

Matia Institutuaren bidez, Matia Fundazioak zahartze-prozesuan pertsonen laguntzeko asmoz "Demenzia duten pertsonekin eguneroko jarduera esanguratsuak egiteko gida" aurkeztu du gaur arratsaldean webinar batean. <https://www.matiainstituto.net/es/participacion-en-foro/construyendo-bienestar-desde-lo-significativo-y-lo-cotidiano>

### **Gidari buruz**

Gida hau Matia Institutuko ikertzaileek egindako eskuliburu berritzailea da, eta **demenzia duten pertsonekin** eguneroko jarduera esanguratsuak identifikatzen eta sortzen laguntzea du helburu. Material horretan, gainera, hainbat adibide aurkituko ditugu, hala nola fitxak, balizko helburuak, inplikaturako gaitasunak, jarraitu beharreko urratsak eta lotutako beste jarduerak batzuen egokitzapen eta iradokizun posibleak.

Demenzia duten pertsonen lan egiten duten profesionalen, zaintzaile profesionalen eta etxean zaintzen duten familiei zuzenduta dago.

### **Testuingurua**

Bizitzan zehar egunak, egunero egiten ditugun jarduerak osatuta egoten dira, gehienetan konturatu ere egin gabe. Hala ere, horietako askok zentzua eta edukia ematen diete gure bizitzari, eta gizabanako bakoitzak nolako garen islatzen dute. Ziur nago hau irakurtzen ari zareten guztiok aukeratzen dituzuela zuen arropa eta osagarriak, jatorduetarako mahaia prestatzen duzuela, etxeko ingurua zaintzen duzuela. Ziur denok ez dugula berdin egiten, eta bakoitzarentzat garrantzitsua dela egitea, eta gure erara egitea, pertsona individual, bakar eta duintasunez indartzen gaituelako.

Demenzia duten pertsonen artean hori ez da desberdina, nahiz eta demenzia duten pertsonentzat eguneroko jarduera esanguratsuak duen garrantziari buruzko ikerketa eremu berri samarra den eta oraindik ez den oso modu zabalean garatu. Garrantzitsua da demenzia duten pertsonak aukera izatea demenziaren aurretik zituen jardueretan parte hartzeko. Beraz, bizi-historia ezinbesteko tresna bihurtzen da pertsona bakoitzaren zainketa plangintza laguntzeko.

Horregatik guztiagatik, gida hau egin da. Material erraza, praktikoa eta moldagarria da, eta, horren bidez, demenzia duten pertsonak zaintzen eta laguntzen dituzten pertsona guztien lana erraztea espero dugu, eguneroko jarduerak terapeutiko esanguratsuen bidez.

Webinarrean aurkeztuko da gaur, osteguna uztailak 9an, eta jatorri askotako 750 pertsonak baino gehiagok eman dute izena. Gai honek arretaren eta zaintzaren sektorean sortzen duen interesaren seinale argia.

Argitalpena **doan deskarga daiteke** Matia Institutuaren argitalpenen atalean.  
<https://www.matiainstituto.net/es/publicaciones>

### Lankidetzeta

Gida egin eta Matia Fundazioaren egoitza-zentroetan testeatu ondoren, gerontologia eremuko beste pertsona eta erakunde batzuek burututako ebaluazio eta hobekuntza-prozesu batetik pasa da.

Elkarlaneko ikerketa bat, ikerketa kolaboratiborako espazio berri batean (<http://www.matiainstituto.net/es/investigacion-colaborativa>), adineko pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen arreta eta ongizatea hobetzeko funtsezko zeregina duten eragileen (erakundeak, profesionalak eta, oro har, gizartea) sareko lana sustatzen duena.

Ildo berean kokatzen dira Matia Institutuak abian jarritako beste ekimen batzuk. Ekimen horien ondorioz, tresnak, argitalpenak edo jarduketa-gidak sortu nahi dira, eta horiek, Matia Fundazioaren zentroetan aplikatzeaz gain, beste eragile batzuen inplikazioa behar dute haien irismena hareagotzeko eta beste testuinguru batzuetan hobekuntzak egiteko.

27 erakunde laguntzaile eta profesional independenteen gidaren ebaluazioa jaso dugu.

### Matia Fundazioari buruz:

Matia Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorrekoa, eta 130 urtetik gorako esperientzia duena. Erreferente bat da Gipuzkoako adinekoen arretan eta zahartzeari buruzko ikerketan, bai nazioan, bai nazioartean. Pertsona ardatz duen arretaren printzipioak landuz, helburua da pertsonen zahartze-prozesuan laguntzea, haien ongizatea hobetzeko, haien autonomia eta duintasuna sustatuko duten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortuz. 2002an, ikerketa-institutu bat sortzea erabaki zuen (Matia Institutua), ikerketa/ekintza integratzea eta ebidentzian eta eguneroko jardunean oinarritutako ezagutza sortzea errazten duena.

### Matia Fundazioa:

- Prentsa-kabinetea. Silvia Turné. 616 112 580 [silvia.turne@matiafundazioa.eus](mailto:silvia.turne@matiafundazioa.eus)
- Komunikazioaren eta marketinaren arduraduna. Gorka Alías. 636 019 170. [gorka.alias@matiafundazioa.eus](mailto:gorka.alias@matiafundazioa.eus)